

Phuntzionariat

Hego haizearen "Rapsody in blue"
ikustéaren "Velvet" gorria
Nire etsai tikiena.

Mentearen urdin argia
Berrogeitazazpigarren mailako
izakia
"Phuntzionariat"

Burua jeiki eta ikus
Pentsagailua jeiki eta ikas
Begiak iriki eta itzali gero:

"Aita gurea
zeruetan zagozana..."

Goizeko deiar

Goizeko deiar, portu usai
beprekari duzu nere sendira.
Nere bizia ikara kondénatu
duzu... Hala ere, goizeko,
bizitzeko behar zaitut.

Kai iteera astuna da, beti bezela,
eta itxas zabaleko lana itxasontzia
inguratzen duen irudiaren
haunditasun eta bakartadeagatik
zuzendurik dago; gainera
datorkigu, eta zeru eta itxasoko
haserre biziz zeharkatzen
gaituena...

Gaur ere baretu zaigu
bere indarrean eta itzuliaz goaz
etxera, baina... eta bihar?

Zati txiki bat La m'en

Planetan hitzetan zintzilik
Zure oihartzuna eta epeltasuna
dasta ditut nire altzoan
apurtzen ari direnen hotzak.

Hirugarrenez ahantzi ditut
nire hatzamarrek zure adatsean
urrezko purpurinapean
ageri duzun goxotasuntzan.

Zure begien binetetan
arnasa eutsiaz lasaitzen nauzu
Islatzen nauzu, deitzen nauzu
eta zoli, zoli, naramazu.

Hil! hil! hil! Illunabarrero
edo ametsak hautsi sosega nadin
esna nadin, kontura nadin
(eta) haizearen kontra urtu nadin.

Lau teiltatu

Hemen gaude
eta poztutzen naiz
ziur zure aita ere bai
Zer ondo!
zelan dijoa zure bufanda txuria

Lau teiltatu gainean
ilargia erdian eta
zu goruntz begira
zure kea eskuetan
putzara batekin putz!
neregana etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaietan

Goxo goxo
kanta egin nazu
Benitoren Maria Solt
Ez negarrik egin
txuri zaude eta malkoak
zure kolorea kentzen dute

Lau teiltatu gainean...

Felix-felix bihar
berriz izango gara
txanpain apur batekin
Diru gabe baina
izarrak gurekin daude
piano baten soinuaz

Lau teiltatu gainean...

Hilzori

Bihar hil egingo naiz. Gaur bezela, atzo bezela...
Biharra gaurra izatera itzuliko da, atzoa... izena aldatuta.
Masokismo asko beharko da zehazki arrankatzeko, dena dago hain erroturik; bihar hil dadin, betiko... bihar ez dadin gaur bihurtu, atzo...

Gaur ez dut ezer lortu... eta bihar, benetan hiltzen banaiz, ez dut beste eguneroko hilketez deusik nabarituriko, dena izango berdin; zuen urratzen berdintasunez konturatuko naiz; beste izen batzuekin, kolorea aldatuz, beste fetxa batzuekin, baina harri berbera zapaltzen, betiko bide berbera, gizona gidatu duen izar on eta eder batek irekia... bere hilzoria...
"Bitxu" Arriola, bihar zurekin egongo naiz.

Foisis jauna

Ez
Ez dut utziko inori nere barruan agintzen
Zu inor zara eta hala ere menperatzen diazu
Lasto ustela izango naiz?
Bakarrik dakit hala naizela eta...

Zuk bakarrik dakizu
Pilatos zenbat maite dudan
Zuk
Zenbat miresten zalantza
Zenbat nazkatzen beldurra
Zuk bakarrik ezagutzen nire barnea
nire kanpoa.

Ni
reenkarnatuko banintz obeditzeko nintzateke (eta) lo
naturaren sartadak
pairatzen ditut garunetan
bibolin hotzak bailira
Horregatikan
maite zaitut gaur.

Bai
orori bai esanaz
farrearen mugetan nauzu
Gaur
elurra bonbiletan
funditzen den bezala nauzu
Guttikin naiz zoriotsu
Ikusi zaitut...
ikusi zaitut...

Astelehen urdin batean

Izar betaurrekodunak
izotzaren erreinuan
zerura oihu egiten dute semeak bilatzen.

Izar betaurrekodunak
izotzaren erreinuan
lurrera ihes egiten dute erribera baten bila.

Izar betaurrekodunak
begi trebez
itxasoan jartzen dira
astelehen urdin batean.

Izar betaurrekodunak
egjak alaitzen ari direnak.

Izar betaurrekodunak
gezurak hilkutxan lurperatzen
dituztenak
eta gero ur garbia edanik etxera
dijoaz
biboliña ahustera.

Izar betaurrekodunak
zeruan hegoak
lurrera kataiatuz.